





Eraikuntzak %6,2 areagotu zuen ekoizpena



Iturria: Eustat.

2023. urte osoan, EAEko eraikuntzaren sektoreko jarduera %6,2 hazi zen 2022. urtearen aldean. Igoera hori obra zibilean (%9,8) eta eraikuntzan (%5,6) izandako gorakadaren ondorioz gertatu zen. Hala-ber, enpleguak portaera zertxobait positiboa (%0,2) erakutsi zuen.

Azalera handietako salmentak %2,9 jaitsi ziren




Iturria: Eustat.

Urtarrilean, EAEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentek %2,9ko beherakada pairatu zuten, aurreko urteko hil beraren aldean. Beherakada hori elikagaien (-%1,5) eta gainerako produktuen (-%5,1) bilakaera negatiboak eragin zuen. Hala ere, enpleguak balio positiboetan (%1,7) jarraitu zuen.



Turismoen matrikulazioa hazi egin da

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko urtarrila




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako azken datuen arabera, **2024ko urtarrilean 2.165 auto matrikulatu ziren EAEn, aurreko urteko hilabete berean baino %13,4 gehiago.** Hori horrela izanda, 2023ko amaieran bizi zen goranzko joerari eutsi zaio eta aurreko hiru urteetako erregistroak gainditu dira.

Estatuko KPIa %2,8ra jaitsi zen otsailean

Estatuko KPIa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratu duen adierazle aurreratuaren arabera, **otsailean Estatuko KPI %2,8an kokatu zen, urtarriko datua baino sei hamarren beherago.** Bilakaera horren arrazoia argindarraren prezioetan izandako jaitsiera eta elikagaien prezioen egonkortasuna dira. Halaber, azpiko inflazioa bi hamarren jaitsi zen, %3,4ra arte.